

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

IDAZKARITZA NAGUSIA

Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko urriaren 20ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

– **Foru Dekretua:**

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 34/2020 Foru Dekretua, urriaren 20koa. Onespena ematea patataren eta azukre erremolatxaren ekoizleentzako eta ardi eta ahuntz azienden ustiategientzako laguntzen aldi baterako araubidearen oinarri arautzaileei, bai eta 2020rako deialdiari ere.

– **Erabakiak:**

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 480/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea kontrako irizpena adieraztea Arabako Batzar Nagusiek zerga jakin batzuetan errekarquak aldi baterako ezartzeko foru arauaren proposamena aintzat hartzeari buruz.

ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 481/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea Arabako Foru Aldundiarentzat gaztelania-euskara eta euskara-gaztelania itzulpenak eta zuzenketak egiteko zerbitzua-ren kontratazioaren luzapena.

Foru Gobernu Kontseiluaren 482/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Ez onartzea LABen ordezkartzan Kontseiluaren abuztuaren 4ko 26/2020 Foru Dekretuaren aurka jarritako berraztertze ko errekurtsua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 483/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa - Empresa de Certificación y Servicios IZENPE SArri egindako enkargua, ziurtapen elektronikoaren eredu komun bat garatzeko, bai eta konfiantza zerbitzuena eta datu bitartekaritzarena ere; gauzatze epea: 2020ko urriaren 3tik 2021eko abenduaren 31ra artekoa, eta aurrekontua 241.785,98 euro.

Foru Gobernu Kontseiluaren 484/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onespena ematea hutsak zuzentzeari berogailuko C gasolioa hornitzeari buruzko esparru akordioaren lehen luzapena onetsi zuen urriaren 6ko 444/2020ko Erabakian.

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 485/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea argitara dadila Arabako Foru Aldundi honekin zorrak dituztenen zerrenda Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 92.ter artikuluan ezarritako betekizunak betetzen dituzten zor eta zehapenengatik.

Foru Gobernu Kontseiluaren 486/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onespena ematea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta, 2020ko urtekoa 2021ean banatzeko 26/2020 konpromiso kredituaren (600.000,00 euro) espedienteari, gastuen egoeraren "BEI-BEA Kotxetegiak" partidan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 487/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea doan lagatzea Fundación Valle Salado de Añana-Añanako Gatz Harana Fundazioari Gesaltza Añanako Real kalean kokatutako "ElTorco" izeneko eraikinaren erabilera.

LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 488/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onartzea abenduaren 27ko 850/2019 Erabakiaren bidez profesional autonomoei emandako dirulaguntzak ordaintzeko egiaztagiriak aurkeztu izana.

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 489/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea okupatu beharreko azalera handitzea "A-625 errepidea, 357,30 KPtik 354,22 KPra arte, egokitzeko eraikuntza proiektu, A-625 errepidea, 359,65 KPtik 354,22. KPra arte, egokitzeko eraikitze proiektu aldatutik xehatuaren" hondakindegietarako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 490/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Egokitzea Gasteizko hirian autobus elektriko adimenduna ezartzeko hitzarmenaren esleipenak, BEI/BEAren karga unitate funtzionalaren eraikuntza proiektua gauzatzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 491/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako Lehen Atalak martxoaren 14ko 148/2017 Erabakiaren aurka emandako ekainaren 28ko 228/2018 Epaiaren betearazpena.

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 492/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea lehenengo dirulaguntza-ematea, Kontseiluaren otsailaren 4ko 46/2020 Erabakiaren bidez deituak, Arabako Lurralde Historikoko jaiotza tasa sustatzeko 2019ko ekitaldirako.

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 493/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onespina ematea Pablo de Oraá Oleagak Kirol zuzendari kargua uzteari, berak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 494/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onespina ematea Ana Rosa López de Uralde Gómez Kirol zuzendari izendatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 495/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea zuzeneko dirulaguntza ematea Kalitatea Sustatzeko Euskal Fundazioari, kirol erakundeen kudeaketa hobetzeko programaren XIII. ediziorako.

Foru Gobernu Kontseiluaren 496/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onespina ematea Eskola Kiroleko kanpainan parte hartzen duten kirolariak garraiatzeko zerbitzuko kontratuen likidazioari eta fidantzen itzulketari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 497/2020 Erabakia, urriaren 20koa. Onestea EHUrekin praktika akademikoak egiteko sinatutako lankidetzeta hitzarmenaren testuan egindako hutsen zuzenketa. Hitzarmen hori irailaren 15eko 419/2019 Erabakiaren bidez onetsi zen.